

noaua

**Udajolas martxan
izango da uztailean**

**Oiaro kiroldegiko
gimnasioa eta igerilekua
zabalik dira**

**Usurbil 'Oinherri' sareko
kide egin da**

Argazkia: Ibai Arrieta

Kronik@

Mihise taldearen argi-ilunak islatzen dituen diskoa

Berriro zuen zerbitzura!
osasun neurri guztiekin



ARRAUN-JARDUERAK ORIA IBAIAN

Ontzien alokairua
urte osoan zehar

Begiraleekin antolatutako
jarduerak



ARATZ

zabaleta anaiak



31 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

Aginagako erriberako herri-bidea egokitu dute



Bidea txukundu eta euri-urak jasotzeko sistema jarri dute.

Aginagako erriberako herri-bidea egokitze-ko lanak Murgil Eraikuntzak enpresak egin ditu. Usurbilgo Udalak aditzera eman duene-

nez, herri-bideak orain “3 metroko zabalera du: azken 53 metroetan, berriz, 4 metrokoa, bidea lehendik zeuden murrutara egokitu

baitute (Urdaiaarako bidearekin elkartzen den aldean)”. Bidea txukuntzeaz gain, euri-urak jasotzeko sistema ezarri dute.

Laburrean

Posta bidez bozkatzeko aukera

Maiatzaren 19an zabaldu zen posta bidez bozkatzeko aukera. Eskaera Correoseko bulegoan edo telematikoki correos.es web orriaren bidez uztailaren 2a baino lehen bidera daiteke.

Begiraleentzako eta euskara ikasleentzako dirulaguntzak

Euskara ikasteko nahiz aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituzte-entzako diru-laguntzak adostu dituzte Tokiko Gobernu Batzordean. Oinarriak usurbil.eus orrian dituzue ikusgai.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberrri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroit S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

Azken agurrak

Bizitza eta heriotza elkarrekin doaz beti, baina aditu batzuen ustez, gizarte honetan, heriotzaren gaiaren inguruan beste aldera begiratzeko joera handia dago askotan. Koronabirusak heriotza ekarri du etxe askotara; alde batetik hildakoak hor daude eta bestetik sarritan hildakoak agurtu ezin egonezina eta mina sortu du; hildako askok ez du inor izan alboan hiltzeko une larri horretan eta agur duinik ere ez. Eta horrelakoak milaka izan dira. Psikologo batzuen arabera hildakoen familiarterako %30ak laguntza psikologikoa beharko du gertaera latz horrek beren baitan utzi duen trauma gainditzeko.

Elkarte batzuk sortu direla irakurtzen nuen eginkizun zail horretan laguntzeko asmoz, adibidez, Hil Argi, Dolulaguna, Eusko Jaurilaritzak martxan jarri duen Betirako... Denek lagundu nahi diete dolu hori emankorrago izan dadin eta berandu bada ere, behar den bezalako azken

agur sozial nahiz intimo egoki bat eskaintzeko hil denari. Hil Argi Elkarteko kide Nere Urkiagak honela dio: “jaio egiten garen bezala, hil egiten gara. Ezin diogu ihes egin eta ezin dugu ostrukarena egin. Heriotza ez da bizitzaren kontrakoa, beregan dago. Osatu egiten du eta ezin diogu bizkarra eman”. Enfoke asko ditu heriotzak: pertsonala, intimoa, erlijiosoa, dolua. Elkarte hauek gizarte eta kultura mailako enfoke bat eman nahi diote. Batez ere isolamendu edo konfinamendu egoeran joan direnei omenaldi ekitaldiak eskainiz. Heriotza hauen humanizazioa landu nahi dute, elkartasuna adieraziz eta bizitza guztien balio handia azpimarratuz.

Heriotzak duen tabu kutsua kendu nahi diote. Tabu hitzak jatorri bitxia du. Hain zuzen, Frantziar Polinesiatik ekarri zuten berba hau James Cook nabigatzaileak eta guztiz debekatuta dagoen zerbait adierazi nahi du polinesiarren hizkuntzan. Naturaz gaindiko indarren batzuekin erlazionatuta zeuden

tabuak eta ezin ziren ukitu ere, bestela jainkozko zigorren bat jasango zenuen. Leku askotan heriotza ezkutatu egin behar da, zoritxarren bat ekar diezazuke eta.

Konfinamendu garai honetan nik izan ditudan bizipenek ez naute batere traumatizatu. Zorionez bigarren fasean ospatu nuen azken agur laiko bat, nahiz eta nire ukitu espirituala eman nion. Errekaldeko tana-torioan izan zen. Han bildu ziren hildakoaren bi semeak (bat ikasle izan nuen gure ikastolan) beren emazte eta haurrekin. Guztira hamaika pertsona bildu ginen. Poz handia hartu nuen lau gaztetxo haiek aitonaren gorpuaren inguruan ikusita. Adin horretakoak ikustea hildakoaren alboan ez da oso ohikoa. Jada ulertu dute gaztetxo horiek heriotza bizitzaren parte bat dela. Beti esaten diet gaztetxo eta gazteei gauza bera edo beretsua une horietan: heriotzaren aurka borrokatzeko bide egokiena biziari kantatzea dela, bizitza biziari kanta bihurtzea. Adibide batzuk ere ematen

dizkiet esaldi potolo samar hori uler dezaten. Esaldi hori Joxean Artzeri hartu nion: “bizi naizeño, bizia kantatuko dut”, dio poema batean. Une horietan aurrez aurre dauzkadan haur, nerabe eta gazteak dira niretzat sakratuenak. Erraz manipula daitezke eta horixe ez nuke nahi, alde-rantziz baizik, lagundu nahi nieke, neurri xumean bederen, bizitzari zentzu egoki bat ematen. Ostegun honetan 3. fasean geunden eta lagun bat lurperatzeko unean familiarterko hogeita hamar bat pertsona bildu ziren eta horien artean dozena bat nerabe eta gazte. Nire gogoetatxoa bukatu eta Gure Aita erreztatu ondoren, hildakoaren bilobetako batek Xabier Leteren “izarren hautsa” entzunarazi zigun. Mikel Laboaren bertsioan. Oso hunkigarria benetan. Honela dio abestiak: “izarren hautsa egun batean/bilakatu zen bizigai,/hauts hartatikan uste gabea/noizpait ginaden gu ernai”. Hileta iluntzean ospatu genuen.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Maddi Aburruza

Ika-mika

Zubietako Herri Jaiak bertan behera

Osasun krisialdi baten erdian aurkitzen gara. Une zail eta eze-gonkorrak bizi ditugu, krisiak zuzenki eragin baitie gizartea antolatzeko eta harremantzeko moduei. Hala, azken asteetan, segurtasun- eta higiene-neurri zorrotzekin bizi gara.

Herriko festak herritarrok elkartzeko eta une atseginak igarotzeko baliatzen ditugu, baita bertatik bertara kultur ekitaldiez gozatzeko ere. Aur-

tengoak ezin liriteke izan orain arte ezagututako herriko jaiak, hau da, ezingo genituzke nahi bezala ospatu. Egoera honetan, eta hainbat bilera eta eztabaida izan ostean, erabaki garrantzitsua hartu behar izan dugu: Zubietako 2020ko herri jaiak ez antolatzea.

Irtenbideren bat topatu nahian, aukera ezberdinak aztertzen aritu gara: besteak beste, kultur ekitaldiren bat antolatzeko aukera, Usurbilgo Udalak

landu duen Ekimen Kulturalak burutzeko Protokoloa baliatuz. Zerbait antolatzekotan, irudimena eta sormena funtsezko izango baitira.

Hala eta guztiz ere, herritar guztion segurtasuna bermatzeko aldera eta jaien egitaraua osatzen ari ginenon indarrak baloratu ostean, jaiak bertan behera uzteko erabakia hartu behar izan dugu, pena handiz.

Herritar talderen batek zerbait antolatzeko irrika izan

badezake, jar dadila gurekin harremanetan esku artean izan ditugun aukerez aritzeko.

Ez da erabaki erraza izan, baina datorren urteko festak ilusio eta gogo handiagoz hartzea egingo du, desio ditugun ospakizunez gozatzeko.

Besterik gabe, zaindu elkar eta jaso besarkada bana.

**Zubietako Jai Batzordea,
Zubietako Herri Batzarra.**

Covid19 udal bulegoa eratzea eskatu du PSE-k

Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren laguntza lerroak tramitatu eta orientazioa eskaintzeko Covid19 bulegoa sortzea eskatu du udaletxean Usurbilgo PSE-k. Beharrezko giza baliabideekin hornitua egotea proposatzen du.

Bulegoa Covid19-ak eguneroko bizimodua gehiegi oztopatzen dioten pertsonak detektatzeko baliatzea ere eskatzen du PSE-k. Kasuok gero Gizarte Zerbitzuetara bideratu daitezkeela dio, beharrezkoa baltz, sanitarioki artatuak izateko dauden prozedurez aholkatzeko.

2019-23 legealdia abiatu zenetik lehen urtea bete den honetan, azken hilabeteok Covid19-ak nabarmen baldintzatu dituela dio PSE-ren oharrak. Eta horretan jarria dutela arreta, aurrerarik izan ez eta konplexua den errealitate honen aurrean, "Usurbilen berreraikitze ekonomiko eta sozialean". Leialtasun instituzionalez jokatu dutela nabarmendu du PSE-k, "udalerrri honetako herritarren inte-



Krisian leialtasun instituzionalez jokatu dutela nabarmendu du PSE-k.

COVID19 BULEGOA

Beharrezko giza baliabideekin hornitua egotea proposatzen du Usurbilgo PSE-k

resen defentsan lanean, erantzukizunez, koherentziaz eta zuhurtziaz".

Oposizioaren ekarpenez

Kritiko agertu da PSE udal gobernu taldearekin. Gehiengo osoa izan arren, oposizioa bilerak biltzetara baino ez duela deitu eta egoeraren larritasunaren aurrean PSE gehiago aintzatzat hartu ez izana deitoratu du. Udalbatzak aho batez onarturiko erakunde adierazpena

aipatu du adibide moduan. Udal gobernu taldeak aipatu adierazpenerako ez zuela udal talde guztien adostasuna sustatu. "PSE izan zen gobernu eta oposizioa alderdi guztiak eroso sentiaraziko zituen testu berri bat bultzatzera deitu zituen".

Ildo honetatik, oposizioak ideiak eta proposamenak aurkeztu ditzakeela eta "udal gobernu taldeak aztertu behar dituela" dio PSE-ek. "Kosta egiten da ulertzea haiek uste izatea herritarrentzat ez dugula ezer interesgarriker aurkeztuko eta harrigarria da EHBilduk ez ulertzea guztiz beharrezkoa dela koronabirusak eragindako krisialdiari ahalik eta erantzun adostuena ematea".

Maiatzean langabeziak gorantz, kontratazioak ere bai

Covid19-a gure artera heldu zenetik gorantz egin du etenik gabe, Usurbilgo langabetu kopuruak. Estatuko Enplegu Zerbitzuak kalaturiko maiatzeko azken datuek ere joera bera berresten dute. Kontratazioan izan den beherakada aldiz hautsi egin da, zertxobait gora egin du joan den hilabetean.

Estatuko Enplegu Zerbitzuak kalaturiko azken datuen arabera, 290 langabetu zituen Usurbilek maiatzean. Otsaileko datuekin alderatuta, lanik gabeko 69 herritar gehiago.

Kontratazioak gorantz

Covid19a gure artera heldu zenetik nabarmen jaitsi zen Usurbilen erregistraturiko kontratu kopurua. Otsailean 334 izan ziren, martxoan 259ra eta apirilean 75eraino murriztu zen. Beheranzko joera hautsi dute ordea maiatzeko datuek. Joan den hilabetean, 113 izan ziren udalerrri honetan erregistraturiko kontratuak.

Covid19-ak baldintzaturiko hauteskundeak

Pixkanaka hurbiltzen doa uztailearen 12a, EAE-ko Legebiltzarra berritzeko hauteskunde eguna. Prestaketa lanak aurrerabidean doaz. Astearte goizean udaletxean egin zuten ezohiko udalbatzarrean, egun horretan hauteslekuetan lan egitea egokituko zaien herritarrek hautatu zituzten. Egokitu zaizuenoi, ohi bezala, egunotan jasoko duzue jakinarazpena Udaltzaingoaren bidez. Lehendakari, bokal eta ordezkioak aintzakotzat hartuta, 72 izan dira herritar hautatuak.

Bi hautesleku berri

Zozketa honetan aukeratuak izango diren herritarrek ezohi-

ko hauteskunde eguna biziko dute. Ez soilik lan egitea egokituko zaielako, Covid19-ak eragindako osasun krisialdiaren testuinguru ezberdin honetan, hainbat prebentzio neurri hartu beharko direlako. Segurtasuna bermatze aldera, zenbait aldatzea izango dira uztailearen 12an. Besteak beste hauteslekuetan. "Koronabirusaren ondorioz, eta segurtasun neurriak ahalik eta ondoen betetze aldera, hauteslekuetan bi aldatzea egin dira", zehaztu du Usurbilgo Udalak. Batetik, Udarregi Ikastolan egokitu ohi izan diren hiru mahaiak Oiar-do Kiroldegira lekuz aldatuko dituzte. Bestalde, "Aginagako

eskola txikiko geletako bat erabili beharrean, psikomotritate gela erabiliko da (frontoi aldetik sartuta, ezkerreko gela)", ohartarazi du Udalak.

Gainerakoan, orain arte bezala, bi hauteskunde mahai Kalezarko Haur Eskolan osatuko dira, mahai bana Santuenea Auzo Elkarteko egoitzan eta beste bi Zubietan. Bat Usurbil aldean bizi diren zubietarrentzat Lanbide Eskolan eta eskola txikian aldiz Donostia aldean bizi direnentzat.

Posta bidez bozkatzeko, online eskaera

Uztailearen 2ra arte eskatu ahaliko da posta bidez bozka-

zea Correoseko bulegoan. Ohi baino ordutegi zabalagoan aurkitu duzue irekita: astelehenean ostiralera, 8:30-14:30 artean, larunbatetan 9:30-14:30 artean, eta uztailearen 12ra arte gutxienez, astearte eta ostegun arratsaldetan 18:00-20:00 artean.

Bulegoraino joan beharrik izan gabe, correos.es bidez ere telematikoki bideratu ahaliko duzue eskabidea eta dokumentazioa jaso eta bete ostean posta bidezko bozka postariak norbere etxean jasotzeko aukera izango da. Bestela, uztailearen 10eko arratsaldeko 14:00ak baino lehen eraman beharko da Correoseko bulegora.

Oiardo Kiroldegiko gimnasioa eta igerilekua zabalik dira


Kiroldegia era mailakatu irekitzen doaz asteotan. Desinfekzio protokolo bat landu dute, egunero lau aldiz desinfektatuko dute langileek Kiroldegia. Erabiltzaileei ere laguntza eskatzen diete; norberak erabilitako espazioa desinfektatzea. Horrekin batera, bai gimnasioa eta igerilekua era mugatuan baliatu ahalko da. Horretarako zenbait baldintza ezartzea erabaki dute. Hortik aurrera, “astez aste balorazioa egingo dute”, iragarri du Udalak.

Diru itzulketa

Gogoan izan, Kiroldegia ia hiru hilabetez itxia egon da. Udalak aurrez iragarri izan duen moduan, erabiltzen ez den udal zerbitzuengatik ez du kobratuko. Ondorioz, “datozen asteetan hasiko dira zerbitzua etenda egon den epeari dagokion diru kopurua itzultzen (martxoak 14-ekainak 15 tartea erreferentziatzen hartuta)”. Ikastaro eta bonuei dagokienean, kiroldegia itxita egon den denbora tartearen aldiarekiko proportzioa itzuliko da. Udalak prozesu konplexu samarra izango dela aurreikusi arren, “ahalik eta epe laburrean egin nahi dituzte diru itzulketak”.

Kiroldegiaren ordutegia

- Astelehenetik ostiralera: 7:00-12:30 / 14:30-22:00.
- Larunbatetan: 8:00-13:30



Erabiltzaileei ere laguntza eskatu diete; norberak erabilitako espazioa desinfektatzea.

IA HIRU HILABETEZ ITXITA EGON DA

“Datozen asteetan hasiko dira zerbitzua etenda egon den epeari dagokion diru kopurua itzultzen”

/15:30-21:00 (larunbatetan ordubete lehenago ireki eta eguerdian itxiko dute garbiketalarana egiteko).

- Igandeetan: 09:00-13:00.

Baldintza orokorrak

- Txanda batzuk 65 urtetik gorako herritarrentzat, haurdun egon edo arrisku taldeetako ki-deentzat gordeko dira.
- Abuztuan ez da itxiko Kiroldegia.

- Udako hilabeteetarako gazte zein helduentzako ikastaro eskaintza handitzea aztertzen ari dira.

- Kiroldegirako txanda aurrez eskatu beharko da 943 37 24 98 telefono zenbakian.

- Txandak gehienez ordubete-tekoak izango dira. Tarte horretan, sartu, erabili eta atera beharko da.

- Txanda bakoitzean ilara egin beharko da Kiroldegian eta Kiroldegiko langileek adierazitakoan sartu.

- Ostegunetan eskatu ahalko dira hurrengo asterako txandak.

Gimnasioa

- Gehienez orduko 35 erabiltzaile. Gimnasioko gelan eta eskubaloiko pistan jarriko dituzte makinak.

- Eguneko txanda bat eskatu ahalko da.

- Ezingo dira aldagelak erabili: kirol jarduera egiteko arropa jantzita joan beharko dira erabiltzaileak eta nork bere toaila eraman beharko du (eramaten ez dutenek, ezingo dute sartu).

- Gehienez 45 minutuz baliatu ahalko da gimnasioa. Gero, erabilitako makina desinfektatu eta arrapatatik irten beharko da.

Igerilekua

- Aldagelak erabili ahalko dira.

- Igerileku handiko txandak: kale bakoitzeko igerilari bat. Igerian egiteko 45 minutu eta dutxatzeko gehienez 15 minutu.

- Igerileku txikiko txandak: bitan banatuko da igerilekua, zati bakoitzean erabiltzaile bat; familiar eta kolektibo berezientzat soilik (igerian ikasten ari direnak adibidez); ordu eta laurdenerako txandak (45 minutu erabiltzeko, 30 minutu aldatzeko, tartean ume txikiek denbora gehiago izan dezaten); aldagela mistoko komun egokituetan dutxatu beharko dute, baliabideak egokitu dituzte familiar erosoago aldatzeko; aldagelak erabili ostean, espazioa desinfektatu beharko dute.

- Erreserbak: igerileku handian astean gehienez hiru aldiz; igerileku txikian, astean gehienez bi aldiz.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak. ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Usurbil, “Oinherri” sareko kide

Usurbil “Oinherri” herri hezitzaileen sarean txertatzea erabaki zuen udalbatzak joan den otsaileko osoko bilkuran. Hasiera batean urtebeterako hitzartu dute elkarlanerako akordioa, urtez urte luzatzen segi ahalko da “legeak ezarritako muge barruan”.

Hitzarmen honen baitan 3.000 euroko ekarpenarekin lagunduko du diruz Udalak “Oinherri” egitasmoa, “bere jarduerak eta proiektuak Usurbilen finantzatzeko, bere printzipio eta lan ildoak gainerako herri eragileekin elkarlanean garatzeko”.

Gogorazi zuenez, bai konfinamenduan eta “deseskalatze” prozesu osoan, “ikusitako ahal izan dugu haurrak bazterrean utzi dituztela erakunde ezberdinek eta ez dituztela aintzat hartu haurren eskubide eta beharrak”. Testuinguru honetan zioenez, “helduoi haurren ahotsak entzunaraztea, haien eskubideak aldarrikatzea eta haien hitza eta erabakia ematea dagokigu”. Eta horregatik zioen bat egin dutela “Oinhe-



Otsailean onartu bazen ere, hitzarmena ekainaren 12an sinatu zen Potxoenean.

ALKATEA

Pandemian bizitakoak bizita, “konbentzimendu handiagoz” izenpetu dutela hitzarmena adierazi zuen alkateak

“Oinherri” egitasmoarekin, “izan ere gure ustez ere oso garrantzitsua da, jolasa eta sormena oinarri hartuta haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitze-ko ahalmena ematea, eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate sarea eta auzolana in-

dartzea eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea”.

Ildo horiekin bat eginik lanean jardun eta hainbat egitasmo sustatu dituztela adierazi zuten. Adibide moduan aipatu zuten Zirimara egitasmoa. Hitzarmen honekin lan ildo horietan sakondu nahi dute, herriko hezkuntza, kultura eta aisialdi arloetako eragileekin elkarlanean, “baita filosofia horrekin lanean ari diren gainerako Euskal Herriko udal eta herriekin batera, elkar ezagutu, elkarrengandik ikasiz eta norabide horretan kokatzen diren eredu, egitasmo eta praktika onak gure herrira ekarriz”.

Joxe Mari Agirretxe: “Elkarrekin indartsuago gara”

Hitzarmen hau sinatuta, Usurbil Euskal Herriko “Oinherri” herri hezitzaileen sarean txertatuko da. “Dozena bat elkartetik gora gaude; euskalgintzakoak, aisialdian lan egiten dugunak, talde hezitzaileak...”, “Oinherri” egitasmoaren sustatzaileetako batek, Joxe Mari Agirretxek Potxoenean adierazi zuenez.

Hitzarmen hau sinatzea oso garrantzitsutzat jo zuen. Oinherri egitasmoa hain zuzen horretara dator, “herrien arteko sare bat osatzera, denon artean badaukagulako zer ikasi eta zer eskaini”. Ikuspegi horretatik eredu garrantzitsutzat jo zuen Usurbil. “Herri bizia, ekintzai-

lea, auzolana zer den ederki dakizuen. Naturaren zaintzan eredu bat markatu duzuen Euskal Herrian. Eredugarria, komunitatearen parte hartzearekin. Baita kultur esparruan eta beste hainbat esparruetan”.

Oinherri egitasmoarentzat Usurbil kide izateak “zuen esperientzia eta jakinduria besteekin partekatzea suposatuko du guretzat eta besteongandik jasotzea eta elkarrekin indartsuagoak izatea. Komunitatearen indarra eta gauzak egiteko beste modu eraldatzailea izatea”.

Erronka argia marraztu zuen Agirretxek; “komunitatea indartu nahi dugu. Denon artean

egin, jasoz eta emanez”. Hartara, “denon eta denontzat izango den herri osasuntsu bat sortuko dugu”. Are gehiago, Agirretxek zioenez, pandemia honek agerian utzi duen guztiaren ostean. “Zerbait argi geratu bada munduak norabide aldaketa behar duela da eta horretan denok erabaki behar dugu”.

Gure bizitzan eta munduan herritarrok izan behar dugula protagonistak zioen. Horretan ari direla lanean, “irri eginez borrokatzen”. Txikitasunetik abiatutako bide eraldatzailea, “elkarrekin egingo dugu bide hori, zalantzarik ez izan. Euskal haur herri irripublika horren bila. Aupa Usurbil!”.

Kattalin Minerrekin solasaldia Sutegi udal liburutegian

Konfinamenduaren osteko lehen ekitaldia iragarri du Sutegi udal liburutegiak ekainaren 23rako; euskarazko irakurketa-solasaldia Kattalin Miner idazle eta kazetariarekin. Moio: gordetza ezinezkoa zen (Elkar) izeneko sortze lana aurkeztuko du arratsaldeko 18:00etan.

Liburuak Kattalinek lagun min Aimar Eloseggi Ansaren bitzita eta heriotza erretratatzen du.

Aurrez izena eman

Aforoa mugatua denez, alde aurretik izena eman behar da. Liburua bera eLiburutegian (Liburutegi digitalean) eskuratu ahal izango da. “Digitalki lortzeko laguntza behar baduzu, jarri gurekin harremanetan”; baita noski ekitaldira joan nahi dutenek ere.

Liburutegia zabalik da

Astelehenean “deseskalatze” prozesuan urrats berri bat eman eta liburutegia ireki zuten. Adi, maileguan hartutako materiala itzuli edo hartzeko hitzordua eskatu beharko da aurrez. Liburutegian bertan ikasteko aukera egongo da gainera, 14-65 urte artekoentzat. Gehienez 13 pertsonak egon ahalko dute. Kasu honetan ere aurrez hitzordua eskatzea ezinbestekoa izango da. Astelehenetik ostiralera, 10:00-18:30 artean segiko du zabalik.

Harremanetarako:

- 943 36 06 92
- 688 625 477 (Whatsapp)
- biblioteka@usurbil.eus



Kattalin Miner, Moio liburua eskuetan duela.

Etumeta AEK, etxealditik Euskaraldira bidean

COVID19-ak bizimodua goitik behera aldatu digun arren, koronabirusa gure artera heldu aurretik abian ziren hainbat ekimenek, etenaldiak etenaldi, bere bidea jorratzen segitzen dute; tartean, urte amaieran izango dugun 2. Euskaraldiak. Dakizuenez, 2018. urte amaieran milatik gora Ahobizi eta Belarriprest-ek euskara ahotan hartzeko konpromisoa hartu zuten. 11 eguneko ariketa hari segida emango dio, oraingoan ahalegin kolektiboa sustatu nahi duen edizio berriak. Norbanako Ahobizi eta Belarriprest-ekin batera, denetarik entitateen (kultur eta kirol taldeak, erakundeak, elkarteak, eragileak...) parte hartzea sustatu nahi da.

Entitateotan ariguneak edo euskaraz aritzeko gune babestuak sortu edo sustatu nahi dira. Ekimenean parte hartzeko izen ematea zabalik dute. Usurbilen jada urte hasieran 13 entitatek hartu zuten konpromisoa Euskaraldiarekin: Santueneko Gure Elkartea tabernak, Santueneko Zaharren Egoitzak, Usurbilgo Lanbide Eskolak, Kabieneak, Orbeldi dantza taldeak, Fagor Automationek, Saizar Sagardotegiak, Usurbil Kirol Elkarteak,



Entitateotan ariguneak edo euskaraz aritzeko gune babestuak sortu edota sustatu nahi dira aurtengo Euskaraldian.

EUSKARALDIA

“Usurbilen jada urte hasieran 13 entitatek hartu zuten konpromisoa Euskaraldiarekin”

Usurbil Futbol Taldeak, Aitzaga tabernak, Natalik, Amenabar farmaziak eta Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak.

Zenbait entitateek ere izena eman dute jada; tartean da Etumeta AEK euskaltegia. “Erabat bat dator geure helburuekin; erabilera sustatzea, ez bakarrik ikasleengan dakitenengan ere”, euskaltegiko irakasle Rosa Zu-

beldiak NOAUA!ri adierazi dienez. Etumeta AEK-ren kasuan, “arigunea bagara, ez da sortu behar, jarraipena eman behar zaio. Gure arteko komunikazioa euskaraz da”. Barne arigune horretatik kanpo geratuko lirakeke, “maila baxuko euskara ikasleak”. Gogoan izan, Euskaraldian parte hartzeko ezinbesteko baldintza da gutxieneko ulermen maila izatea. Lantzekotan, kanpo ariguneak izan ditzake euskaltegiak; hornitzaile edo teknikariekin izan ditzaketen hartuemanak.

“Koherentzia handiagoa behar dugu”

Euskara erabiltzeko irakasten dute AEK-n, euskaraz bizi ahal izateko. AEK-k lan mundua du

arreta gune nagusietako bat aspalditik. “Hor ere pausoak eman beharko dira, bestela katea eteten bada, erabilera ere bai”, Zubeldiak ohartarazi digunez. Euskararen inguruan azken urteotan eginiko ikerketak gogorarazi dizkigu: eza-gutzak gora egin du bai, baina erabilerak ez hainbeste. Eta horretan jarri behar da arreta; “ez dugu ezer egiten fokua bakarrik ikasten ari direnengan jartzen badugu. Euskaldun sentitzen garenek dugu erantzukizuna eta ardura”. Euskara ezagutzen, ikasten ari direnzentzako erreferenteak izan behar dugula dio. “Komertzio batera joan eta euskaldun peto-petoa izan arren, erdaraz ari badira niri zergatik eskatu behar didate euskara erabiltzea? Koherentzia handiagoa behar dugu guk ere. Erantzukizun handiena gurea da”, Zubeldiaren iritziz.

Eta hor dator lehen hitza euskaraz adieraztearen garrantzia, baina baita sarritan sortzen diren zailtasunak; besteak euskara jakingo ote duen edo ez, zer nolako erantzuna jasoko dugun... “Ez da ezer gertatzen besteak euskara ez badaki; ez zaituela ulertzen esango dizu”. Egoera hauek kudeatzen zer ikasia badugula diote AEK-tik.

“Urteetako jarraipena behar du”

Testuinguru honekin, bistan denez, 2. Euskaraldiaren beharra bada honenbestez. Estreinako ediziotik ia urte eta erdi igaro da; 11 egun haietan parte hartu zuten milatik gora herritarren artean ilusioa eta gogoia, kontzientziarioa bazirela oroitzen dute euskaltegitik. “Baina denborarekin diluitu egin da”. Horregatik

diote, hizkuntza ohiturak aldatzen lagundu zuen 1. Euskaraldiak “baina ezinezkoa da aspaldi erroturiko ohiturak urte batean aldatzea, 11 egunetan gutxiago”. Horregatik dio euskaltegiko irakasle Olaia Elizalde, “honek urteetako jarraipena behar du, geratzen bada ahaztu egingo gara. Euskaraldiak martxan

segitzen duela identifikatzeko Ahobizi eta Belarriprest txapak egunero erabiliko bagenitu hobeto”. Txapak jantzeak hain zuzen, eguneroko bizimoduan lehen hitza euskaraz hartzeko konpromisoa izaten laguntzen du Zubeldiak nabarmendu digunez. “Ausartzeko konpromiso hori. Eta hor ezusteko onak izan

dira”.

Datozen Euskaraldiei begira erronka argia dugu Elizalderen esanetan; “kontua da ohiturak aldatu eta mantentzea”.

Ariketa kolektiboa izango da bigarren edizioa; “ondo dago aldaketa hori ere, sareztatzen lagunduko du”, Elizalderen ustez.

Etxetik euskara ikasten

Etxealditik Euskaraldi-
ra bidean da euskalte-
gia, ezohiko jardunean.
Guztioi bezala bat-batean
harrapatu zien konfinamen-
duak Etumeta AEK-ko ikasle
eta irakasleei. Alarma egoera
indarrean jarri bezperatan,
Gasteiz aldean identifikatu
zen lehenengoetako fokua
ostean, Arabako euskaltegiak
itxi zituzten. “Bazetorrela
ikusten genuen”, oroitzen du
Zubeldiak, “eta etorri zen”,
martxoaren 13ko asteburuan.
“Klaseei eutsi behar eta nola”
egin erabaki beharrean aurkitu
ziren. “Materiala prestatu
eta egokitu beharra”, Olaiak
azaldu digunez. Orduetik, arlo
askotara hedatu den moduan,
telematikoki bideratu behar
izan dute euskaltegiko jardun-
naren zati handiena; “nola edo
ahala moldatu gara”.

Euskara ikasi edo ezagutza
mailan sakontzeko autoikas-
kuntza hautatu zutenek, ez
dute alde handirik nabarmen-
du konfinamendu asteotan, ez
baitute aurrez aurreko klaserik
izaten. Tutoretza saioak soilik
eta hauek bideo deien bidez
egin dituzte. Etxealdiak bene-
tan eragin dituenak, “aurrez
aurreko saioak jasotzen dituz-
ten ikasleak izan dira, ez online
bidezkoak”. Emailez jasotako
ariketen aurrean, “ahal zuten
moduan erantzun dute ikas-
leek. Askok oso ondo eta beste
batzuk, gurasoak izanik, lana
bikoiztu edo hirukoiztu zaie eta
ezin izan dute lan txukun bat
egin”, Olaiaren esanetan.



Etxealdia ezarri zenean, telematikoki bideratu behar izan zuten euskaltegiko jardunaren zati handiena; “nola edo ahala moldatu gara”.

IKASLEAK, ETXETIK

**“Ikasle ia denek etxetik,
ordenagailu bidez
euskara ikasi
edo maila hobetzen
segi ahal izan dute”**

Ikasle ia denek etxetik, orde-
nagailu bidez euskara ikasi edo
maila hobetzen segi ahal izan
dute. Baina izan da ordenagai-
lurik ez zuten ikasle batzuk ere.
Kasuotan, “neurri desberdinak
hartu behar izan ditugu eta exi-
jentzia maila ez da hain altua
izan”, Elizalde azaldu duenez.
Ikasleei eskerrak helarazi nahi
dizkiete euskaltegitik, “izan du-
ten jarrera onagatik”.

Prozesu geldoagoa

Irakasleei ere bete-bete
eragin die konfinamenduak.
“Irakaskuntza prozesua mol-
datu beharra eragin digu; eta
prozesua pixka bat geldotu
egin du”, Rosaren esanetan.
Euskaltegiko klaseetan, “zu
zaude teoria azaltzeko. Bai-
na klaseak prestatu eta teoria

emailaz bidaltzean, ikasleak
ez daude ohituak teoria hori
ulertzera. Azalpenak jasotzen
dituzte, ez dute teoria jasotzen
idatzia dagoen moduan”.

Ikasle ia denek etxetik, orde-
nagailu bidez segi ahal izan
dute euskara ikasi edo maila
hobetzen. “Ezin taldean lan
egin, zalantzak argitzeko mo-
dua ere erabat desberdina da,
bideo deien bidez, telefonoz
deituta”, Olaiaren esanetan.
Bakarrik ikasi behar. “Orde-
nagailua piztu, hor dituzun
lanak egin behar. Etxeko ba-
ten batek laguntza eman ba-
diezaioke oso ondo, baina
bestela bakardade horretan”,
Rosak azaldu digunez. Eta ho-
rrek ikasteko motibazioan ere
zuzenean eragin du.

“Telelanaren” abantaila eta
zailtasunak azaleratu dira,
baita euskaltegiko artean ere.
“Orduetgia mugatu behar
baina ezinezkoa da. Gainera
etorri zaigu eta ahal dugun
moduan kudeatzen ari gara,
gainerako guztiek bezala”,
Rosaren esanetan.

Animatu eta izena eman

Ikasturte amaieran da Etu-
meta AEK euskaltegia, eba-
luazio garaian dira. Ezohiko
bukaera izango du aurten.
“Triste, oso arraro amaituko
da”, Rosa Zubeldiak adierazi
digunez. Ez dute garai hone-
tan oportetara joan aurretik
ohikoak duten afari edo aska-
ririk egingo.

AEK-k ordea ez du opo-
rrik izango; orain udako
“kanpaina” dute begi bis-
tan. Printzipioz aurrez a-
urreko ikastaroak sustatuko
dituzte, eta gero unean une-
ko egoeraren baitan, egoki-
tzapenak egin; talde txikiak
osatu, autoikaskuntzaren
aukera eskaini... “Anima-
tu dadila jendea eta izena
eman dezatela”, luzatu du
gonbita Olaia Elizalde.

Udazkenari begira

Mezu bera baita, udazke-
nean hasiko duten ikasturte
berrirako ere. “Inork ezin du
aurreratu” momentuz zer no-
lako izango den. “Ez dakigu
pantaila baten atzean edo
arbela baten aurrean egongo
garen. Ez dakigu nola egongo
garen baina hemen egongo
gara”. Euskaltegitik aditzera
eman digutenez, urteroko
eskaintza plazaratuko dute,
“eta gero datorrenari aurre
egin beharko diogu, datorren
bezala moldatuko gara”.

Informazio gehiago:

607 609 379
usurbil@aek.eus
aek.eus
munterri.blogspot.com.es

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Josue

Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Jairik gabeko asteburua Kalezarren

Covid19-agatik izan ez balitz, festa giroan murgiltzen lehena izango zen urtero moduan Kalezar. Asteburu honetan bertan hasiko zituzten jaiak. Aurtengo ediziorako antolaketa lanak ere oso aurreratuak zituzten; baina osasun krisialdia tarteko, Jai Batzordeak ospakizunak bertan behera uztea erabaki du. Auzo giroa suspertzeko ahaleginetan segitzen dute ordea, lerrootan adierazi digutenez.



“Oraintxe hirugarren fasean gaude, baina jaiak ez ospatzeko eginiko hautuari eustea erabaki dugu”, esan digute Jai Batzordekoek. Argazkia, artxibokoa.

NOAUA! Konfinamenduak antolaketa lanetan harrapatuko zintuzten.

Kalezarko Jai Batzordea: Antolaketa lanak ia amaituta; bai-menak eskatzen hastear, musika taldeak ia guztiz lotuak... Festak bertan behera geratzen zihozazela ikusten ari ginen. Azken unera arte itxaron nahi izan genuen, baina deseskalatze faseekin hasitakoan, osasunaren alde egitea erabaki genuen. Garbi genuen kontzertuak ezingo genituela egin, San Juan sua bezalako ekitaldi tradizionalak distantzien kontrolaren ardura gure gain ez genuela hartu nahi... Festak bertan behera uztea, ez ospa-

JAI BATZORDEA

Antolaketa lanak oso aurreratuak zituzten baina osasun krisialdia tarteko, ospakizunak bertan behera uztea erabaki dute

tzea erabaki genuen.

Deseskalatzen joan arren, ez zenuten ikusten ohiko festak segurtasunez ospatzeko behar beste baldintzarik zegoenik.

Hori da. Guztiaren aurretik osasuna eta segurtasuna zegoen. Ez genekien egoera hau noiz arte luzatuko zen. Oraintxe 3. fasean gaude, gauza batzuk egin daitezke baina ez ge-

nieken jendeak nola erantzun zezakeen. Jaiak ez ospatzeko eginiko hautuari eustea erabaki genuen.

Antolaketa lanak noiz abiatzen dituzue?

Berez hiru bat hilabete lehenago, otsaila edo martxoan aldera. Aste Santuen bueltan hasi ginen. Gutxi gorabehera jai egitaraua eginda egoten da urtero, erdia baino gehiago itxita genuen aurten.

Aurtengo prestaketak telematikoki bideratu beharko zenituzten. Antolaketa prozesua bera baldintzatu du?

Esperientzia desberdina izan

da. Bilerak hauek emankorra goak izan dira. Bat hitz egiten ari dela, aurrez aurreko bileretan baino errazago entzuten da. Modu berri honetara ohitu gara pixkanaka. Batek daki; hurrengo urtean oraindik agian, festak telematikoki prestatzen hasiko gara.

Ondo bidean, asteburu honetan hasiko ziren Kalezarko festak. Egunotan zertan arituko zintezten?

Aste hau, ordu libreak ditugunean plazaren inguruan egoten gara, brigadakoak edo eskatutako materiala datorrenerako zain, oholta eta txosna muntatzeko lanetan... Topera ibiltzen gara. Burua gehiago dugu Kalezarko festetan, gure ikasketak edo lanpostuetan baino. Aste hau berezia izaten ari da; orain gaude ez gabiltzala festetarako prestatzen.

Hutsunea nabariko duzue noski.

Guztiz. Kalezartik igarotzean, Pelaiouena eraikinean obretan daude, plazan inor ez dagoela ikusteak nostalgia puntu bat ematen du. Baina umorez hartzea hobereena.

Auzo mugimendua sortzeko ahaleginetan

NOAUA! Zer nolako ekarpena egiten diete festek auzo giroari?

Kalezarko Jai Batzordea: Kalezarko festek herriari ematen diena, batez ere tradizioa da. Ez dira bakarrik auzoetako lehenengo festak, oso jai tradizionalak dira, betiko festak; San Juan eskea, haurren oilasko biltzaileak, txosnan jartzen den giroa, sagardoa, musika, aspalditik guztiz errotua dugun San Juan egun borobila... Betiko festa giroa

mantentzen saiatzen gara. Udako lehen festak izanik, jendeak poztasun handiz hartzen ditu.

Isiltasuna nagusituko da Kalezarren, jaiena behar zuen asteburu honetan. Konfinamendu asteetan bezala.

Egoera asko aldatu da Kalezarren azken hilabeteetan. Ugartondoko lanekin, Kalezarren trafiko handia sortu da. Kanean soinu nabari da. Urte ezberdina izaten ari da

guztiagatik; trafikoagatik, Pelaiouena eraikina berritzen ari direlako, festarik ez delako izango... Espero dezagun aurten bakarrik izatea, datorren urtea beste hainbestekoa ez izatea.

2021erako festetan pentsatzen hasiak al zarete? Edo nahiago duzue hurrengo urtera arte itxarrotea?

Ez dugu ezer pentsatu datorren urtera begira. Aurtengoa pasatzea nahi dugu. Ez dakigu

ezta zer ohitura sortuko diren, zer nolako arauak egongo diren, txosnak higiene kontuagatik baimenduak egongo diren, ze baliabiderek... Batek daki. Azken aldi auzotar heldu, gazte eta haurrak elkartu nahian gabiltza, auzo mugimendu bat sortzeko, biltzeko, Kalezar biziberritzeko. Horretarako gogoia dago eta jendearen partetik prestasuna baita. Aukera izatea bakarrik falta zaigu. Ia covid19-ak gauzak antolatzen uzten digun.

**“Ikasi dut
berraktibatzea
elkartasunetik
etorriko dela”.**

Nerea Ibáñez
ASPEGI

Ekonomia. Ostalaritza, turismoa, bertako komertzioa, industria... Gelditu egin gara, baina inoiz baino argiago dugu 'errealitate berrira' itzultzea Gipuzkoa osatzen dugun norbanako bakoitzaren esku dagoela.

#AurreraEgitekoGogoratu

Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Mihise: “Zerotik hastea bezala izan da”

KRONIK@ IZENEKO DISKOA PLAZARATUKO DUTE ASTE HONETAN

NOAUA! Mihise ez da ezereztik sortu. Proiektu berri honen ernamuina Hotzikara taldean dago, ezta?

Antton Aranburu: Eboluzio bat izan da, baina inkontzientea. David abeslariak Hotzikara utzi zuenean aurrera egin genuen. Sortzeari ez genion utzi, entseazten jarraitu genuen. Eta segitze horretan, beste zerbait sortzen ari ginela jabetu ginen. Orduan konturatu ginen beste izen bat ipini behar geniola taldeari. Ez zela aurrekoaren segida, aldatu egin zela gure proposamena.

Beñat Urteaga: Hotzikararen azken garaian igartzen zen gaur egun Mihise den honetarako norantza bat. Batez ere, bigarren diskoko azken kantana.

Antton: Hotzikararen azken diskoko azken kantak bilakera bat markatzen du.

Instrumentazioan ere badago aldaketarik.

Mikel Olasagasti: Zer edozer berria egin nahi genuelako. Instrumentu berriekin hasi ginen jolasean, gauza berriak esploratzeko gogoia genuelako. Urte asko dira elkarrekin jotzen eta baguenen beste zerbait proba-



Aste honetan aurkeztuko dute diskoa. Lehen zuzenekoak ekainaren 26an eskainiko dute Donostiako Dokan. Uztailaren 2an Usurbilgo Kultur Biran arituko dira, Oiardo kiroldegian. Argazkia: Ibai Arrieta.

BEÑAT URTEAGA

“Hotzikararen azken garaian igartzen zen gaur egun Mihise den honetarako norantza bat”

tzeko gogoia. Motibagarria izan zedin.

Antton: Nik sintetizadore bat erosi nuen, probatzeko batez ere.

Baina jolas horrek enkajutzen zuen. Beñatek beste bat lortu zuen eta sintetizadorea taldeko beste instrumentu finko batean bilakatu zen. Hala ere, taldearen oinarria gitarra-baxua-bateria da. Sintetizadoreak beste ukitu bat eman dio.

Mikel: Guztiz berria zen guretzat. Zerotik hastea bezala izan zen.

Bada beste berrikuntzarik. An-

ton eta Beñat kantari bilakatu zarete.

Mikel: Hasiera batean instrumentalak ziren kantak. Plan teamendua hori zen.

Antton: Instrumentalak ziren ez ginelako kantatzera ausartzen!

Mikel: Beno, hori ere hala zen.

Beñat Urteaga: Bi ahotsetara asko kantatzen dugu eta bien artean sortzen den horrekin eroso sentitzen gara.

“Pixkanaka bidea zabaltzen joan gara”

NOAUA! Disko honen erditzea asko luzatu da. Zer dela eta?

Beñat: Faktore asko egon direla uste dut. Pauso asko eman behar izan ditugu. Egoera berrira egokitu behar izan genuen lehenbizi. Hiruko talde batean bihurtu ginen, abeslariarik gabe. Gure bidea jarraitu genuen, gure kantak eginez.

Abeslari bat fitxatzeko tenta-

ziorik izan al zenuten?

Mikel: Ez. Hirurok dagoeneko denbora asko egin dugu elkarrekin... Asko diskutitzen dugu baina eroso gaude formatu honetan.

Antton: Ea nor sartzen duzun matrimonio honetan!

Beñat: Gure elkarrizketen %60a diskusioak izaten dira baina hala ere ederki moldatzen gara.

Beste faktore batzuk ere izan direla diozu, Beñat.

Beñat: Estilo finko bat ez dugu baina Hotzikara izan gabe, rockera hurbildu nahi genuen. Iluna den zerbait egin nahi genuen baina argia ere sartu nahi genion...

Mikel: Guk ere ez genekien oso ondo zer egin nahi genuen. Pixkanaka bidea zabaltzen joan gara, sastrakak

txikitzen.

Antton: Kronik@ diskoan plazaratu ditugun kanta batzuk hor zeuden duela hiru urte. Jotzeko batzen ginen lokalean, ez disko bat grabatzeko asmoz.

Helburu bat baino, Kronik@ diskoa bilaketa baten emaitza izan da orduan?

Antton: Hori da.

“Hirurak elkarrekin eta batera grabatzeko esperientzia probatu nahi genuen”

NOAUA! “Lokalera joaten ginen jolastera”, esan duzu Antton. **Kronik@** diskoa jarrera horren emaitza al da?

Antton Aranburu: Hori da. Grabaketa bera ez da hain luzea izan, aurreko urteetan egindako sortze-prozesua izan da luzatu dena.

Beñat Urteaga: Diskoa dena jarrarian entzuteko egina dago. Erabaki kontziente bat izan zen. Saiatu gara kanta guztien artean loturak egiten. Horrek ere denbora asko eskatu digu. Emaitzarekin oso gustura gaude baina kostata izan da.

Antton: Kantak lotu ahal izateko, pieza txikiak sortu ditugu, Pintzeladak izenekoak. Hasiera batean lotura gisa sortu genituen baina gero kanta osoak bihurtu dira.

10 kanta dira baina pieza bakarraren parte dira. Kanten izenburuek ere esaldi bat osatzen dute elkarrekin. Nolakoa izan da sormen prozesua?

Antton: Guk musika sortzen dugu lehenbizi. Eta ondoren letra. Kanta batean musika prest genuenean orduan etor-



‘Balio dute’ musika kolektiboarekin plazaratu dute **Kronik@** izeneko diskoa. Argazkia: Ibai Arrieta.

BIRA MAIATZEAN HASTEKOA ZEN

“Lauzpabost kontzertu haizea hartzera joan dira. Egoera argitzen doan heinean, joango gara kontzertu gehiago lotzen”

tzen zen letra. Beñaten ardura izan da. Osotasun bat eman die diskoko hitzei.

Beñat: Musikalki, kanta bako-

tzak bere ukitua zuen. Batzuk ilunagoak, besteak alaiagoak... Ipuin bat bisualizatu genuen. Istorio bat. Eta pentsatu genuen horrekin bazegoela bidaia oso bat kontatzea, bere interesa mantenduko zuena. Hori genuen buruan, baina etxean esperientzia gogor bat eduki dut azken urteotan eta horretaz hitz egin nahi nuen. Bizitzak hurrengo kolpea eman arte, jarraitu beharra dagoela. Eta ideia horrekin egin genuen aurrera.

Kronik@ diskoko letren zein musiken arteko sinbiosia agerikoa da. Bada dena lotzen duen zerbait.

Antton: Letrek argilunak dituzte eta musikalki ere hala da. Batzuk ilunak eta zaratzatua goak dira, besteak leunagoak eta argitsuagoak.

Diskoa Beran grabatu zenuten, Iñigo Irazokiren Atala estudioan. Nolatan?

Beñat: Hirurak batera eta elkarrekin grabatzeko esperientzia probatu nahi genuen. Zuzeneko sentsazio hori transmititzea, nolabait esatearren. Talde ezagunak Atala estudioan grabatzen ikusi ditugu eta euren diskoen soinukerak asko erakarri izan gaitu.

Mikel Olasagasti: Analogikoan grabatzeko aukera izan dugu.

Antton: Orain arte banaka grabatu izan dugu eta ez dut esango disfrutatu ez dugunik. Honakoan batera grabatu ditugu kantak eta benetan gozatu egin dut estudioan. Kontzertu batean jotzea bezala izan da. Alde horretatik pozik gaude esperientziarekin.

“Jai Batzordetik egin den ahalegina eskertzekoa da”

NOAUA! Konfinamenduak zein neurritan baldintzatu du diskoaren plazaratzea?

Antton: Diskoa maiatzean ateratzeko asmoa genuen eta aurkezpen bira bat lotuta genuen. Baina konfinamendurekin lau zpabost kontzertu haizea hartzera joan dira. Orain, ber-rasmatze honetan, zerotik hasi behar dugu. Egoera argitzen joaten den heinean joango gara kontzertu gehiago lotzen.

Aste honetan aurkeztuko du-

zue diskoa. Noiz hasiko zarete zuzeneko kontzertuak eskaintzen?

Antton: Diskoa ekainaren 18an plazaratuko dugu eta lehen kontzertua ekainaren 26an egingo dugu Donostiako Dokan. Lagun artean, eta eskertza moduan. Aldez aurretik erosi dutenei diskoa emateko aprobetxatuko dugu.

Eta uztailaren 2an Oiardo kiroldegian arituko gara, Kultur Biraren baitan, Ezpalak taldearekin.

Une honetan ziurgabetasuna da nagusi. Beste kontzertuekin zer gertatuko da?

Beñat: Plateruenan eskaini behar genuena hurrengo urteko urtarrilera pasa dugu. Willis Drummond eta Pelaxekin arituko gara. Beste kontzertuak galdu egin ditugu.

Usurbilen, jaien ordezkari Kultur Bira antolatuko da. Kanpoan adibide gisa jar daiteke, ezta?

Beñat: Oso eskertuta gaude. Arriskua handia baita. Erraze-

na litzateke, “aurten ez da ezer egingo eta datorren urtean ikusiko dugu elkar Santixabeletan”. Baina Jai Batzordetik egin den ahalegina eskertzekoa da.

Diskoa hain berezia izanik, nolakoak izango dira zuzenekoak?

Mikel: Diskoko kanten ordena jarraituko dugu zuzenekoan.

Beñat: Beste zerbait egiteak puskatu egingo luke diskoaren logika. Hasi eta buka, diskoa joko dugu.

Beste lau urtez lankidetzan ariko dira NOAUA! Kultur Elkarteak eta Udala

Apirileko udalbatzarrak aho bateko babesa eman ostean, proiektua sortu zenetik eten ez den lankidetzaren hitzarmena berri-berri dute beste lau urterako Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak. Ekainaren 12an izenpetu zuten bi aldeek Agurtzane Solaberrieta alkateak eta Idoia Torregarai kultur elkartearen lehendakariak hitzarmen berria, Potxoenean egin zuten ekitaldian.

Horri esker, diruz lagunduko du Udalak kultur elkarteak eta hedabidea bera; 56.000 euroko diru ekarpena egingo dio 2020an, 58.000 eurokoa urtero 2021-23 urte artean. Horrekin batera, kultur elkarteak Bordaberri 3 behean duen egoitza beste lau urtez utziko dio.

Agurtzane Solaberrieta: "Herri bizitzaren ispilu da NOAUA!"

"Edozein testuingurutan beharrezkoa den hitzarmena sinatuko badugu ere, esango nuke oraingo testuinguru sozioekonomiko zail honetan are beharrezkoagoa dela izaera honetako hitzarmenak sinat-



Diruz lagunduko du Udalak NOAUA! kultur elkarteak eta, horrekin batera, Bordaberri 3 behean duen egoitza utziko dio Udalak NOAUA!ri.

AGURTZANE SOLABERRIETA ALKATEA

"Herri bizitzaren ispilu da NOAUA! eta aldi berean herriari bizitasuna ematen dion elkarteak da"

tzea", adierazi zuen alkateak. Covid19-ak arlo guztietan eragindako krisi sakonak, gogorazten zuenez, "asko kolpatu ditu" baita besteak beste, tokiko komunikabideak.

Euskarazko tokiko komuni-

kabideak eta kultur elkarteak zaindu beharreko egitasmozat jo zituen alkateak. Informazioaren mundua "handiek eta handikiek" bereganatu nahi duten garai honek argi uzten du bere ustez, beste eremu askotan bezala, honetan ere "kilometro zero"aren garrantzia; "txikien ekarria eta freskotasuna" zer beharrezkoa den.

Txikitasunetik eragiten

Txikitasunetik garai berrietara egokitu eta komunikazio bitarteko berriak baliatzeko tokiko komunikabideak "izugarri-

ko gaitasuna" erakusten ari direla adierazi zuen. Besteak beste bere esanetan, "tartean NOAUA!. Zortekoak gara usurbildarrok NOAUA! bezalako aldizkari, webgune eta elkarte bat izateagatik. Herri bizitzaren ispilua da NOAUA! eta aldi berean herriari bizitasuna ematen dion elkarteak da".

"Eskerrik asko euskararen eta kulturaren alorrean zuen ekarpena egiteagatik"

Onena opa izatearekin batera eskerrik zintzoena helarazi zion alkateak NOAUA!ko lan taldeari, "egunero egunero herrian gertatzen den guztiaren berri hain modu eraginkor eta profesionalean usurbildarrei eskaintzeagatik eta euskararen eta kulturaren alorrean zuen ekarpena egiteagatik".

Hurbilekoa zaio NOAUA! K.E. Solaberrietari. "NOAUA!n egin nituen kazetari bezala nire lehen urratsak, eta herri-gintzari lotu nintzaion orduan. Nire etxea izan zen eta neure sentitzen dut oraindik ere". Lankidetzaren hitzarmenak indarrean "urte askoan jarrai dezala" desiratu zuen.

Idoia Torregarai: "Hauspoa, arnasa emango digu"

Pozarren agertu zen lankidetzaren hitzarmen hau sinatzerakoan, NOAUA! Kultur Elkartearen lehendakari Idoia Torregarai. Ez da bi aldeon arteko elkarlanaren abiapuntua. Torregarai nabarmendu nahi izan zuen moduan, "proiektuaren hasieratik izan da Usurbilgo Udalararen eta NOAUA! K.E.-ren arteko elkarlana eta hori ez da askotan ikusten".

"Tokiko hedabideek gertutik informatzen jarraitu dute"

Are gehiago, Covid19-ak baldintzaturiko bizimodu ezberdin honetan. Une zailak bizi arren, "NOAUA!-k eta tokiko komunikabideek izugarritzko egin beharra izan dute eta egunero egunero gertutik informatzen jarraitu dute", eta "inoiz baino ikustaldi eta bisitari gehiago izan ditugu webgunean eta sare sozialetan".

Horregatik zioen, "ezin dugu esker oneko gehiago izan, krisi egoeretan ikusten da lehentasunak non jartzen diren. Behar bada gure gizarte orokorrean beste puntu batzuei ari zaio garrantzia ematen, baina Usurbilgo Udala kulturari eta gertuko komunikabideei ere ematen ari zaie, NOAUA! K.E.-ri kasu honetan". Horregatik zioen, "zoriekoak gara bai usurbildarrek, NOAUA! osatzen dugun

guztiok".

Bertakoa eta gertukoa

Lau urterako lankidetzaren hitzarmen berriak, Torregaraiaren esanetan, "hauspoa, arnasa emango digu gure eguneroko lana profesionaltasunez, gertutasunez eta ilusioz betetzen jarraitzeko". Lankidetzaren honek etorkizunean jarraipena izateko desioa agertu zuen.



Alazne Arruti Bengoetxea

Duela gutxi, plastikozko botila berezi bat azaldu da gure kostaldean. Edukiontzia honek, 2015etik zeraman itsasotik barrena bidaian, 5 urte luzez, Algarvetik abiatu eta Orioko arroketara heldu den arte. 3 eta 7 urteko Pauline eta Ferdinand anai-arreba alemaniarrei itsasora mezu bat bidaltzea otu zitzairen Portugalen oporretan zirela. Mezuan bertan, botila aurkituz gero, Alemaniako helbide batera erantzuteko eskatzen zuten. Dagoeneko, bidean da posta bidezko erantzuna, eta halako mezua aurkitu izana, berezia den arren, bigarren irakurketa bat egiteko ere bali dezake.

Ontzia jaso duen gazte kuadrilak, botila berri-berria zegoela dio. Eta hau, plastikoen iraupenaren erakusle garbia da. Botila hark, uretaratua izan denetik, imajinatzea ere kosta egiten den distantzia zeharkatu du. Kresala, eguzkia eta olatuen indarrak, ez dio askorik eragin. Oso-osorik iraun du eta ziur are gehiago iraungo lukeela, oraindik arrantzatua izan ez balitz.

Gezurra badirudi ere, plastikoen sorrerak, natura bera du oinarritzat. Hari begira hasi eta zenbait materia naturalen propietate plastikoen erakargarritasunak

Bizitza (des)plastifikatzeaz



“Plastiko gehienak erabilera bakarrekoak direla hartu behar da kontuan, eta beraz, geroz eta hondakin gehiagoren sorrera eragin dugula”.

Argazkia: Brian Yurasits, unsplash.com.

ALAZNE ARRUTI

“Badirudi urak guztia irensten duela, geure begi bistatik galtzen delako. Baina ez da hala, eta egoerari aurre egiteko ezinbestekoak dira birziklatzea, berrerabiltzea eta murriztea”

txundituta, plastikoa sintetizatzea erabaki genuen. Baina hasiera batean, etorkizunaren giltzarri zirudienak, jasagarritasunaren oreka hautsi du. Eta irtenbide logiko, higieniko eta erosoena zirudiena, klima aldaketaren eragile nagusia bilakatu da egun.

Arazo honek, bi zutabe nagusi ditu. Batetik, materiala bera sortzeko erabiltzen diren lehengaien jatorria (petroliotik erakarriak dira gehienak), eta hau eraldatu eta egokitzeko beharrezkoa den energia eta ur kantitate esanguratsua ditugu.

Eta bestetik, plastiko gehienak erabilera bakarrekoak direla hartu behar da kontuan, eta beraz, geroz eta hondakin gehiagoren sorrera eragin dugula.

Azken puntu honi dago-kionez, hona adibide bat: Indiako Ozeanoan 600 biztanle inguruko uharte batzuetan, 414 milioi plastikozko piezen artean, besteak beste 977.000 oinetako eta 373.000 hortz-eskuila aurkitu dituzte. Zoritxarrez, uharteok, biztanleria baino plastiko gehiago dute eurenengan, eta urruti gabe, hondakin guztiok sortzeko, populazio honek 4000 urte beharko litzuke gutxi gora behera. Esan gabe doa, hondakin guztiok, inguruko bizidunen eguneroko ogia bihurtu direla. Plastikoa gu irensetik, animalia bizidun asko eta eurekin batera gu gu, hura irenstera heldu gara.

Hondakin hauek noski, munduko leku ezberdinetatik iritsi

dira hara. Hain zuzen, aurrez aipatu botilaren antzera. Beraz, galdetu nahi nioke azaldu den botila honi, zer ikusi ote duen gure kostaldeetara bidean. Ea egunez egun darabiltzagun hondakinekin egin ote duen topo. Ea, galdutako arrantza sare askori egin ote dien izkin, edota, maskarila eta eskularruak marmokekin nahastu ote dituen. Ez baita Indiako Ozeanora joan beharrik, egoeraren larritasunaz jabetzeko.

Badirudi urak guztia irensten duela, geure begi bistatik galtzen delako. Baina ez da hala, eta egoerari aurre egiteko ezinbestekoak dira birziklatzea, berrerabiltzea eta murriztea. Eta bai, guztiok dugu zer aldatua, arazoa konpontzeko.

Hasi bertako produktuak kontsumitzen. Barazki zatar eta okerrenak, plastikorik gabeak. Eraman oihalezko poltsa edo zakutxoak fruta piztzeke edo ogia erosteko. Hasi soltean erosten. Garbiketa edo norbere zaintzari dago-kionez ere, alternatiba ugari daude. Banbuzko hortz-eskuilak, kristalezko potoetan ontziraturiko eta jatorri jasangarriko gel, xaboi eta kremak. Imajinatu dezakezuen edozer dugu eskura, eta kontsumo arduratsuen bidez lortuko dugu merkatuko eskaintza eraldatzea.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroitz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Lizardi: “Lehen baino liburu gehiago saldu dira”

NOAUA! Pandemiaren ondorioz, denda itxita eduki duzue bi hilabetez. Nolakoa izan da itzulera?

Lizardi liburudenda: Bezero batzuk, betikoak, gure zain zeuden. Hori pozgarria izan da guretzat.

Bestetik, ireki genuen momentuan, udal liburutegia itxita zegoen oraindik. Eta umeak etxean zeuden. Liburuak eta denborapasak asko saldu ditugu asteotan.

Beldurrez dabil jendea ala jada lasaitu al dira gauzak?

Maiatzeko lehen asteetan narbitu zen jendea ezin zela kanpora atera. Eta hori guretzat ona izan zen. Dena den, guk asko eskertu dugu betiko bezeroak guregana bueltatu izana. Hori eskertu dugu asko.

Ordutegi berberarekin ari al



Martxoaren 21ean itxi behar izan zuten denda. Maiatzaren erdialdean ireki zuten berriro.

BONUEN SALMENTA

“Garrantzitsuena da jendeak herrian bertan kontsumitzea”

zarete?

Oraindik ordutegi murriztuta-rekin ari gara lanean. Goizean 10:00etan ireki eta arratsaldeko 19:00ak arte daukagu zabalik. Baina laster ordutegi normala

berreskuratuko dugu.

Erosteke joerari dagokionez, asko aldatu al dira gauzak?

Liburuak lehen baino gehiago saldu ditugu. Umeentzat zein helduentzat. Margoak, puzzleak, jostailuak... Horiek ere ondo saldu dira.

Bonu-sistema jarri berri da martxan. Nola joan zaizue le-

hen egun hauetan?

Jendea segituan mugitu da. Batzuk oraindik ez dira etorri erositako bonuak gastatzera. Baina abendura arte dute horretarako denbora.

Beraz, kontsumoa sustatzeko ekimen baliogarria da.

Ona da, bai. *Kultura Bonua* edukitzen dugu eta horrek ere ondo funtzionatzen du. Lehen ekainean izaten zen eta aurten uztailean edo izango dela dirudi. Guk eman dugu izena. Baina eskaintza hori liburuentzat bakarrik da.

Udalak bultzatu duen beste bonu honekin berriz, denetik erosi daiteke. Jostailuak edo puzzleak ere bai. Herrian erosteko ohitura hartzeko balio du gainera. Garrantzitsuena hori baita, jendeak herrian bertan kontsumitzea. Beraz, eskertze-koa da Udalaren ekimena.

Txirinbolo: “Jendea mugitzen ez bada, nire lana ez da mugitzen”

NOAUA! Nola moldatu zarete konfinamendu garaian?

Txirinbolo: Denda itxi behar izan nuen baina lanean aritu nintekeen barruan. Gero guztiz itxi behar izan nuen. Handik aste batzuetara berriro itzultzeko aukera izan nuen, baina nire lanak egitera, ezin nuen denda zabaldu.

Jendaurreko saltokia izateaz gain, hau zure tailerra ere bada.

Berez tailerra da eta tailer bezala lan egin nezakeen baina denda ezin nuen atenditu. Zerbait nahi zuenak hots egiten zidan eta nik hemen prestatzen nuen.

Eta denda zabaldu zenetik ondo joan al zaizue?

Lasai dago dena. Nik enkarguz egiten dut lan. Umeek buru-



Denda izateaz gain, tailerra ere bada Txirinbolo.

TXIRINBOLO

“Jaiak bertan behera utzi dituzte. Nire ofizioarentzat garai zaila da”

handiak eskatzeko, ikusi egin behar dituzte. Baina jaiak bertan behera utzi dituzte. Nire ofizioarentzat garai zaila da.

Hauxe garai lanpetua izan ohi zen lehen, ezta?

Nik normalean lan handia izaten dut Inauteriak arte. Gero hilabetez nahikoa lasai egoten naiz eta herriko jaiak hasten direnean berriro hasten zaizkit eskaerak iristen. Aurten ez daude jaiak, ez daude buruhandiak, ez daude erraldoiak, umeak

etxean daude... Uda pasako da hainbestean eta espero dugu gabonetarako buelta ematea. Nik Estatu mailan egiten dut lan. Internet bidez asko saltzen dut kanpoan. Baina jendea mugitzen ez bada, nire lana ez da mugitzen.

Bonu-sisteman ez duzu parte hartu nahi izan. Hala ere, zer iritzi duzu?

Uste dut aukera ona dela. Jendeari diru aurrezpen hori egitea komeni zaio. Pentsatzen hasita, etxean geratu diren asko ERTEan daude edo soldatak murriztu dizkiete. Beraz, bonuarena lagungarri egin zaiela iruditzen zait. Dena den, eskaintza hauek ez lukete momentu espezifikotetan bakarrik funtzionatu behar, denboran mantendu beharko lirake.

Juantxo: “Ez nuen horrelako harrera espero”

NOAUA! Bi hilabetez itxita eduki duzu denda. Nolakoa izan da itzulera?

Juantxo burdindegia: Oso ona izan da. Horrelako harrera ez nuen espero. Eromena izan da.

Lehen baino lan gehiago izan duzu asteotan?

Bai. Nire estatistikek diotenez, bikoiztu egin da lana. Egoera (ekonomikoa) gogorra iruditzen zitzaidan eta, hala ere, harrera oso ona izan da.

Bezeroak denda noiz irekiko zain zeuden.

Bai, hala izan da. Harrituta nago. Burdindegi guztietan antzeko fenomeno eman dela esan didate.

Bi hilabetez geldu egon eta gero, zaila izan al da berriro martxan jartzea?



Bonuekin ere hurbildu zaizkio bezeroak. “Eskertzekoa da Udalak egin duen ahalegina”, aitortu digute burdindegian.

JUANTXO

“Ireki nuenean, bikoiztu egin zitzaidan lana. Oso harrera ona egin didate”

Ez zait zaila egin. Kontuak nahikoa zuzenduta nituen. Bakarrik nago lanean eta ez dut zorrarik. Ez dut gaizki pasa.

Bueltan zer topatuko, beldur

hori ba al zenuen?

Bai, eta oporretatik ere berdin-berdin itzultzen gara. Beldur hori beti duzu: bi hilabete ni gabe pasa badute, beste toki baterako bidea ikasi badute... Baina oso gustura nago. Eskerrik eman behar nago.

Lanpetuta hasi zinen orduan.

Orain lasaia al daude gauzak?

Azken astea normalagoa izan

da. Dena den, erosteko beste portaera batekin ikusten dut jendea. Uste dut gehiago baloratzen duela herriko eskaintza.

Ireki duzunetik hona, zer da gehien saldu duzuna?

Hiru arlo aipatuko nituzke. Bat, aberiak. Askori puskatu zaizkie duxako flexoak. Argiarekin lotuta ere, eskaera asko izan ditut. Eta pinturan mugimendua egon da. Hiru arlo horietan eman dira salmenta handienak. Sukalderako eta bereziki gozogintzarako tresnak ere, asko saldu ditut.

Bonuak ondo ari dira saltzen. Zuk ere igarri al duzu?

Ez nuen uste gure moduko denda batean funtzionatuko zuenik baina jendea ari da bonuekin erosten. Eskertzekoa da Udalak egin duen ahalegina.

Marije denda: “Arropa eta aldagelak desinfektatzeko makina erosi dugu”

NOAUA! Berriro martxan zaude. Noiz ireki zenuten denda?

Marije denda: Maiatzaren 11n zabaldu genuen.

Bezeroen erantzuna zer moduzkoa izan da?

Ondo erantzun du. Hasiera batean bereziki, ezin zutelako Usurbildik atera.

Etxealdikoa ez zen garai erraza izango zuentzat.

Ez. Urduri eman genituen konfinamenduko asteak, zer gertatuko zen jakin gabe.

Udaberriaren atarian itxi behar izan zenuten denda.

Udaberriko generoa hemen genuen, dendan. Eta ezin saldu. Ia hiru hilabete itxita egon eta gero, negatiboan ekin diogu.



Maiatzaren erdialdean zabaldu zutenetik hona, Marije arropa dendan ohiko ordutegian ari dira lanean.

MARIJE

“Bonuen salmentak oso ondo funtzionatu du gure dendan”

Udalak martxan jarri berri duen bonu salmenta lagungarria izan al da zuentzat?

Jendeak erantzun du. Guk adibidez dena salduta daukagu.

Bultzada hori eskertzekoa izango da hortaz?

Bai. Lagungarria izan da.

Luzatu beharko luketela uste duzue?

Guretzat ederra litzateke. Ideia

ona izan da eta hemen oso ondo funtzionatu du.

Duela bi urte adibidez, Eusko Jaurlaritzak herriko merkataritza sustatzeko bonuak atera zituen eta kanpaina hark ere oso ondo funtzionatu zuen. Eguberrietan izan zen. Oso ondo atera zen.

Prebentzio neurriak bete behar dira toki guztietan. Baita dendetan ere. Zuek ondo egokitu al zarete egoera berrira?

Maskarekin etorri behar da. Gainontzean, arropa eta aldagelak desinfektatzeko makina dugu.

Propio eskuratu behar izan al duzue?

Eta ultravioletazko makina ere bai. Hau da bizi dugun egoera eta egokitu beharra dago.

Hobariak Kalezarko adinekoen auzune berriaren proiekturako

Kalezarko adinekoen auzune berriaren proiektuari %50eko hobaria aplikatzea eskatua dio Matia Fundazioak Usurbilgo Udalarri. Maiatzaren 28ko udalbatzarrak eskaera onartutzat jo zuen.

Ordenantza fiskaletan jasoduten moduan, interes bereziko edo udal onurarako proiektutzat jotzen du Usurbilgo Udalak, etorkizunean Kalezarren kokatuko den adinekoen auzune berria. Honenbestez, Matia Fundazioak eginiko %50eko hobari eskaerari baiezkoa eman zioten gehiengo osoz udal ordezkariak telematikoki elkartu zituen maiatzaren 28ko udalbatzarrean. EHBilduko eta EAJ-ko kideek alde bozkatu zuten; abstentziora jo zuen PSE-ren zinegotziak.

Ez da ordea proiektu honi aplikatuko zaion hobari bakarria izango; Udalak indarrean dituen ordenantza fiskalen baitan, udalbatzak onartu beharrik izan gabe, automatikoki irisgarritasunagatik eta energia efizientziagatik ere %90-95 arteko hobariak aplikatuko dizkiote proiektu honi. Orain baita Matiak eskaturiko %50ekoa ere; hau bai, udalbatzarrak onartu beharra zuen.

Hauekin batera ordenantza fiskaletan aldaketa bat egitea aztertzen ari da udal gobernu taldea, azken plenoan jakinarazi zuten bezala. Proiektu honek



Matia Fundazioak eginiko %50eko hobari eskaerari baiezkoa eman zioten gehiengo osoz udal ordezkariak. Argazkian, maketa baten irudia.

ADINEKOEN AUZUNEA

“Interes bereziko edo udal onurarako proiektutzat jotzen du Usurbilgo Udalak, etorkizunean Kalezarren kokatuko den adinekoen auzune berria”

enplegua ere sustatzen duen neurrian, eta “Covid19-ak eragindako krisia kontuan hartuta”, lanpostu berriak sortzeagatik ordenantza fiskaletan jasoa ez dagoen hobaria aipatu proiektuari aplikatzeko aukera aztertuko du udal gobernu taldeak.

Proiektu integratzailea

Udal onurako eta bizi dugun osasun krisialdi honetan agerian geratu den moduan, beharrezko proiektutzat jo zuen Lur Etxeberria zinegotziak Kale-

zarko adinekoen auzune berria. “Covid19-ak eragindako egoera larri honek bistan utzi du adinekoen zaintzan krisi argi bat dagoela. Zer baztertuak, isolatuak, egoera erabat triste eta larrian izan ditugun argi ikusi da. Sistema honek gabezia bat duela argi geratu da; zer pentsatua eman behar digu, zaintza eredia aldatzera eramane behar gaitu”.

Testuinguru honetan, adinekoak etxean bezala sentiaraziko dituzten bizi proiektuak ezinbestekotzat jo zituen EHBilduren zinegotziak azken udalbatzarrean eta hor kokatu zuen hain zuzen, etorkizunean Kalezarrek izango duen auzune berria. Hainbat tokitan hedatua dagoen Europa iparraldetik gure artera ekarritako proiektua, “integratzailea da arkitektonikoki eta sozialki”.

Hitzarmen soziala lantzen

Orain arteko eredia iraultzen du aipatu egitasmoak. Orain arteko gela soil eta pasillo zabalak ordeztuz, pertsonen autonomia bultzatuko duten apartamentu txikiak izango ditu. Goxotasuna, berotasuna eskainiko duen egurrak presentzia nabarmena izango omen du

eta inguruarekin, herriarekin integratua egongo da.

Integratzailea

Sozialki ere integratzailea izango da honenbestez Kalezarko proiektua; udal gobernu taldeak azken osoko bilkuran iragarri zuten bezala, “Udala hitzarmen

sozial bat lantzen ari da Matiarekin”. Hitzarmen horren baitan besteak beste, sortuko diren lanpostuetan usurbildarrek lehentasuna izatea bultzatu nahi dute, elikaduraren ikuspuntutik bertako produktuak lehenestea, euskara eta generoa kontuan hartzea...



Agenda21 programako ikasleen aurkezpena

Agenda21 programaren baitan, Udarregi Ikastolako Lehen Hezkuntzako 400 ikasleek klima aldaketaren inguruan urtean zehar eginiko lanketa aurkeztekoak ziren aste hasieran telematikoki, alkateari eta ingurumen alorreko udal teknikariari. Klima aldaketari lotutako “sentsibilizazio jarduerak egin dituzte, batik bat. Klima aldaketa zer den, zein eragin dituen eta arazoaren kontzientzia izan dituzte ardatz, besteak beste. Aldi berean, barne diagnostikoa egin du ikastolak ere, gaiak ikastolaren egunerokoan duen presentzia hausnartzen, eguneroko kontsumoak zein eragin izan dezakeen, eta abar”, Udaletik berri eman dutenez.

Konfinamenduak eten zuen lanketa; halere, “energia berri-erregien inguruan ere lanean aritu dira azken hiru hilekoan eta etxean egindako tramankulu batzuen bideoak ere ikusgai izango dituzte”. Sortu duten materialarekin gainera, “ikastolako Txoko Berdea elikatu dute”.

Furgobaratza bueltan da

Covid19-aren ondorioz etenda egon ondoren, Furgobaratza Usurbila bueltan da, gaixotasun eta izurri buruzko doako aholkularitza zerbitzuarekin. Ostegun honetan Agerreazpiko udal baratze parkean, 18:00-19:30 artean. Horrekin batera, “tomate landareak oparitutako dira”, iragarri dute Ekoguneako kideek.

Udajolas izango dugu uztailean

4 -12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko Udajolas antolatzea erabaki dute NOAUA! Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak. Covid-19ak eragindako osasun krisialdira, testuinguru berrira egokituriko aisialdi ekimena izango dugu aurtengo uztailean. Gogoan izan, “deseskalatze” prozesuaren 3. fasean gara jada, “normaltasun berria” delakoan sartze-koak gara datorren astean.

Fase honetan jada udalekuak antolatzea baimendua dago. Honenbestez, maiatzaren 1etik 15era izena online bideratu zenutenontzat Udajolas izango da, beharrezko prebentzio neurriak hartuta.

Datorren astean Sutegin, bilerak gurasoekin

Beharrezko argibideak Sutegiko auditorioan egingo den bilera errondan eskainiko dira:

Ekainak 22, astelehena

■ 16:30 HH3 eta HH4.

■ 18:00 HH5.



“Deseskalatze” prozesuaren 3. fase honetan, udalekuak antolatzea baimendu du Eusko Jaurlaritzak.

IZEN-EMATEA ITXITA DAGO

**“4-12 urte arteko
134 gaztetxok
eman dute izena
aurtengo Udajolasen”**

Ekainak 23, asteartea

■ 16:30 LH2 eta LH3.

■ 18:00 LH1, LH4, LH5 eta LH6.

Oharra: beharrezkoa izango da maskara jantzita joatea.

Deialdi honetara joatea garrantzitsua izango da. Bertan emango dira batetik, co-

vid19-aren eraginez bizi dugun osasun krisialdiaren testuingurura egokituko den Udajolaserako hartuko diren prebentzio neurrien berri; ekimenaren nondik norakoei buruzko behar beste informazio. Eta noski, gurasoen zalantzak argitzeko aukera izango da bertan.

Dekretuak dioena

“Deseskalatze” prozesuaren 3. fase honetan, udalekuak antolatzea baimendu zuen Eusko Jaurlaritzak. Gai honi buruzko xehetasunak, asteazken ho-

netan dekretu bidez plazaratu asmo zituen Gasteizko gobernuak. Orain artean, Eusko Jaurlaritzak gai honi buruz adierazi duena jaso dugu le-rootan. “Haur eta gazteei zuzendutako aisialdioko jarduerak berriro hasi ahal izango dira, erakunde eskudunek ezartzen dituzten arauekin bat etorritik”, Jaurlaritzak ohartarazi duenez.

Bizi dugun osasun krisialdia aintzakotzat hartuta, parte hartzea mugatzea eskatzen du. Jarduerak egiten diren tartean, “parte-hartzaileak gehienez ere 15eko (15 kideko) taldeetan antolatu beharko dira, monitoreak barne”. Horrekin batera, “ohiko gehieneko edukieraren %60ra mugatuko da parte-hartzaileen kopurua”. Udalekuak “aire zabalean” egiten badira “gehienez 200 parte-hartzaile izango dira”, “gune itxietan” antolatzen badira “gehienez 80 parte-hartzaile izango dira”. Bi kasuetan, “monitoreak barne”. Baldintzok betetzen ditu Udajolasek.

Santueneko aulkiak konponduta eta erabiltzeko moduan



Udalak jada konpondu ditu kaltetutako eserlekuak. Salaketa bidali zigun herritar berberak helarazi digu ondoko argazkia.

Santuenetik Txokoaldera doan bi eserlekuren egurrezko oholak ebaki eta ostu zituztela berri eman ziguten zenbait herritarrek ekaina hasieran. Udalak jada

egokitu ditu eserlekuok. Herritar berak eserlekuak konponduta dauden argazkia helarazi du NOAUA!ra. “Ea bakean uzten dituzten”, adierazi digu.

Andatzako hondakinak kendu dituzte



Andatzan, Juanasoro parajea da Karamiolatz trikuharria. Bertan ezezagunek botatako hondakinak jada kendu egin dituzte.

Ekaineko lehen asteburuan albiste izan zen Andatza mendia. Ezezagunek hondakinak pilatu zituztela trikuharri baten ondoan eta argazki bate-

kin osatu zuen salaketa sare sozialen bitartez. Beste herritar batek argazki bat bidali zigun iragan astean, jada hondakinak kendu dituztela argituz.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldia, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berriua. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoekin baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratua-rekin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baseri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziazgarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu.

658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaile eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat, interna bezela, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketari aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardinerian edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658


Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitezko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247



Zorionak Amets!!

Gure etxeko xomorro txikiak 3 urte bete zituen ekainaren 12an! Ze ondo ospatu genuen zure eguna bi egunetan! Txokolatezko 3 muxu handi handi familia guztiaren partez.



Zorionak Hugo!!

Beste urtetxo bat, muxu handi bat denon partez!

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuatarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia han-

dia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak

zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

BESTELAKOAK

Txirrinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarina Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo da 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiaro Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guiupuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 19 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 20 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astearte 23 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ekainak 18 - Ekainak 28

Osteguna 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

Igandea 28 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

19 ostirala

- **Zorione Mendez**en "Marrak" uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.
- **Pepa Bojoren ikastaroa Potxoenean**. 16:00-20:00. Antolatzailea: Parekidetasun Saila.

20 larunbata

- **Zorione Mendez**en "Marrak" uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.
- **Pepa Bojoren ikastaroa Potxoenean**. 10:00-18:00. Antolatzailea: Parekidetasun Saila.

21 igandea

- **Zorione Mendez**en "Marrak" uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.

Konfinamenduak eragindako emozioen lanketarako ikastaroa

Covid19-ak ekarri digun osasun krisialdiak eta konfinamenduak eragindako emozioen lanketarako tailerra antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Asteburu honetan, Potxoenean. Aldez aurretik eman behar da izena.

Pepa Bojo psikologoak gidatuko du "A través del laberinto" izeneko tailer trinkoa Potxoenean.

12 orduko iraupena izango du; hilaren 19an 16:00-20:00 artean, eta hilaren 20an 10:00-18:00 artean.

Doakoa, 14 lagunentzako lekua egongo da, soilik kopuru honetarako bermatu daitezke-eta segurtasun neurriak.



Pepa Bojok eskainiko du ikastaroa.

Izen-ematea zabalik da

Izen-ematea zabalik da. Xehetasun gehiago Parekidetasun Sailean jaso daitezke:

- 943 377 110
- parekidetasuna1@usurbil.eus

Erraustegiari herri erantzun bat emateko biltzarra ostegunean

Zubietako erraustegiaren aurrean antolatu eta herri erantzun bat emateko, konfinamendu aurretik deitu eta covid19-ak bertan behera utzitako herri biltzarra deitu da ostegunerako, ekainaren 18rako 18:30ean Usurbilgo frontoian. "Gure herriaren izaera, izana eta etorkizuna da jokoan duguna", ohartarazi dute deitzaileek.

"Antolatu gaitzen eta elkarrekin erabaki eman beharreko pausuak. Gazte, jubilatutako, kirol eta kultur elkarteak, ingurumen eta osasun arloko eragileak, irakaskuntzakoak, dendariak,... Asanblada ahalik eta zabalena antolatu dezagun eman beharreko erantzuna eztabaidatu eta erabakitzeko".

Datozenak



Zorione Mendez en erakusketa Artzabalen

Artzabalen ikusgai izango duzue bere "Marrak" uztako sortze lan sorta bat uztailearen 31ra arte. Haietako lan bat zozketatu asmo du gainera. Zozketan parte hartzeko Artzabal jatetxeko barrako eltxetxoan "borondatea eman (diru, mezu, iritzi, olerki, goxoki, marrazki... bidez). Ondoren izena eta telefono zenbakia utzi bertan egongo den paper batean". Papertxo hauen artean egingo da ondoko irudiko lanaren zozketa. "Gogoratu erakusketan trukea ere bultzatu nahi dudala", gogorarazi du Mendezek.

Elkarretaratzea

Maiatzean berreskuratu zituen Etxerat-ek azken ostiraletako mobilizazioak. Ekainaren 26an, arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Mobilizazioan parte hartu asmo dutenei maskarak jantzita, eta bi metroko tartea errespetatzea eskatzen zaie.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

ALDAMU

KONPONRETAK

KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825

Emaitzazu bizitza herriari

www.gertuago.eus



gertu@go



Lourdes Larrañaga estetika



Ane ileapaindegia



Intza ileapaindegia



Ines ileapaindegia



Marije arropa denda

Urbil ♥ 20urteaños

Une ahaztezin bat oparitzen dizu.

Hogei urte ez dira egunero betetzen eta, ospatzeko, benetan axola duena oparitu nahi dizugu: **une ahaztezin bat.**



2x

**Bi lagunentzako bi globo-
bidai zozketatzen ditugu.**

Parte hartu Bezeroaren Arretagunean izena emateko formularioa betetzen edota gure Instagrameko profilean **@urbil_cc**. Ekainaren 30era arte hartu ahal izango duzu parte. Kontsultatu informazio guztia hemen: www.urbil.es.

PARTE HARTU!

BLOG



urbil.es